

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

290n. zenbakia
abendua 2003



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



OLEAGA'TAR JESUS ETA ZUBIRI'TAR IÑAKI (G.B.)

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN 1º TA 2N. LENDAKARIAK

IÑAKI:

- LANGINTZA-ASMATZAILLEA
- GUDALBURUA
- 1º JAURLARITZAREN EMENGO
ORDEZKARIA
- EUSKERAZAINTZAKOIA

IZADIA

Izadiaren ederra udabarrirantza goazenean agertzen asten da. Negua bearrezkoa izan arren lurra atsedenduteko, koko barrabasak gitxituteko ta abar, neguaren illuntasunak eta otzak moteldu egiten ditu mendi, zelai ta soloak ta izadi guztia bera be, tristeago aurkitzen da. Zerbait barritasuna bear dala dirudi. Edota bestelan, agure zarragotu egingo gaitu negu baltzaren arpegi illunak.

Baiña egunak egunari dei egiten dautso ta taka taka, eldu gara argi aldiko sasoi pozgarri ontara. Oso osoan sartu gara ba udabarrira. Ta au da poza asmetan dauana izadi guztiak ta baita gizadiak bere. Astuntasun aundi bat kentzen dala dirudi lepo gaiñetik. Solora joakeran asmetan dira txori kanta ezbarðiak, abere txiki oneik, zur, dagoz zugatzen adar puntetan euren aide ta bakeari abes-tuten. Ta bidez bidez lagunak bat euren ingurura doanean, laster, iges egingo dabe, susmo txarren bat euren artean eginda.

Bien bitartean txori abeslariak euren amesa ta poza zabaltzen dautse arizti ta zelaiei ta soloan bearrean dabil-tzezan baserritar aintzatsuei. Txorien kantuak alaitzen dau biotza udabarri usaiñean.

Udabarriak ba dau beste lillura edo zoramen bat, oraindik, bardin barik, ederragoa, geuri geiago ikututen dauskuna, geure gorputz bizitzaren sati bat bai da. Negua-ren amaieretan zan, eskolara niñoiara, Gabon ostean sasi baltza zurituta ikusten naban. Gauz arrigarria neritxon. Ta eskolara sasi ondolik joan bear ta, ara eldu nintzanean, nire arrimena gauz pozgarria izan zan.

Neguko arrantzarte baltz aretan edurra lora zuri biur-tuta egoan. Udabarriko aurrelariak ziran, eguzkia, lurra ta lagunak agurtzen, arantza orde z giza bizia poztuten eben.

Ta inguru edergarri ontan priskuak, loretan, aurrera joiezan, euren izate guztia gizadiari eskeinduz, apal eta zintzo eskola ondoko madaria be zoragarriko kimu barriak urtenda egoan. Udabarriaren asieran bizia dario lurrak ta bere barruko bizi-arnasia prisku, sagar ta mada-ri biurturik damosku. Ta dana biziaren legeari jarraituz, gizonari bizia emoten.

Sasiak arantza artean lora zuria emoten dau, zugatzak, itsu itsuan, lora ondoren sagar ta madari ale gozo ta bizi-garriak. Munduko landara ederrenak giza semeak dira. Berez, jakituriz, apainduak ta biotz dardara edertuak. Jaungoikoak gizonaren bidez munduan egiten dau nai dauana. Argi-argi, igarleen bidez agertu dausku.

Egilleak nai dau gizadia zuzendu ta edertzea, gosea gizartetik kentzea, zapalduak goratzea, zuzengabekeriz espetxeratuak askatzea. Sarritan, gizonak berbeta au ez dabe onartzen, baiña Jesusek era onetan berba egiten eutsen. Zuek gizonak lez berba egiten dozue ta ez Jaun-goikoak lez. Jesusen jokabidea da, zuzentasuna, lagunta-suna, urkoari on egitea. Ta Jesusen jarraitzaille kristi-ñauen bearra ba orixe berberori da... Ta ortik dator betiko askatasunaren zoria.

Paulin

ZER-BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ
ALDIZKARIA

Egilea: "Euskerazaleak"

Kudeatzailea: Fernandez 'tar Karnele

Idazkola: "Euskerazaleak"

Zuzendaria: Olazar 'tar Martin (Euskerazaintzakoa)

Idazleak: Atutxa 'tar Paul (Euskerazaintzakoa)

Arrinda 'tar Anes (Euskerazaintzakoa)

Aldalur 'tar Justine

Egaña 'tar Gotzon

Solozabal 'dar Paulin (Euskerazaintzakoa)

Martiaru 'tar Iñaki

Latiegi 'tar Bixente (Euskerazaintzakoa)

Zubiri 'tar Iñaki (Euskerazaintzakoa) (+)

ZUBIRI'TAR IÑAKI, AGUR!

Atso, azillaren 10n. egunean, Sondika'ko eleizan ospatu gendun Zubiri'tar Iñaki Euskerazaleak Alkartearen lendakariari agurra. Uste bagerik etorri jakun eriotza onek zurtz eginda itzi genduzan eta egin geuntsan agurra agur beroa eta samiña izan zan, bere etxekoakaz alkartuta.

LANKIDE ONA

Iñaki lankide ona izan dogu toki guztietan: isilla, ekin-tzaillea, berbea beteten ona. Illero, utsik egin bagerik ikusi dogu Bilbao'n Euskerazaleen batzarretan igoako ogeta amar-bat urtetan eta Deba'n naiz Bilbao'n Euskerazaintzaren batzarretan beste ogei ta bost-bat urtetan.

Ez da gauza erreza izango berak itzi dauskun utsunea betetea!

IDAZLE UGARIA

Beste lan askotara sartuta egon arren, Iñaki'k atera dau astia idazteko. Nik ez dakit zenbat liburu diran berak idatziak, batez be elebarriak. Guztiak irakurri dodaz argitaratu-aurrean eta sarritan itz-aurrea be egin dautset.

Elebarriak oso onak dira, irudimen aundidunak, aria ondo daroenak, tartekotasun edo "suspense" aundia sortzen dabenak, errian ondo oiñarrituak.

Olerkigintzan eta izlaritzan be egin dau lan.

GUDALBURUA

Iñaki'ren bizitzea luzea izan da eta gauza askotara sartu bear izan dau, gudaketara be bai. Otxandiano guda-

taldean ekin eban "teniente" lez eta orren ondorena espetxeko urteak izan ziran.

JAURLARITZAN

Bere zintzotasuna ikusita, lenengo jaurlaritzak ardurara aundiak emon eutsozan eta Jaurlaritzara erbestera izan zanean, berau izan zan emen barruan eukan ordezkaria

Ez dau inoz alde batera itzi, ez gudan eta ez bakean, ez isillean eta ez agirian, errigintza edo politika-lana, azkenaldian inogaz asarrerik izan bagerik EA'ren barruan. Orregaitik ikusi al izan genduzan illetan alderdi orretako ordezkariarik gurenak.

ELEIZKIDE

Eta, amaitzeko, ezin aitzuta itzi gure Iñaki'ren eleiz-zaletasun zintzoa, gau-gurtzaille ezaguna izate-raiño, eta bai Laukiniz'en eta bai, azken illeotan Sondika'n askotariko laguntza apala eskintzen izan daua.

Amaitzeko, emen esan doguzan ainbat gauza ez dira naikoa Iñaki'ren nortasuna agertzeko, bere egiñak askoz zabalagoak eta sakonagoak diralako, baiña ezin amaitu gure gazteai dei bat egin barik: Sartu daitezela olako lan-arloetara, erriak ori bear dualako.

Olazar'tar Martin'ek



Iñaki de Zubiri Sánchez

(Goian bego)

Funeral

HOY,
lunes, 10

7,00
de la tarde

Parroquia de San Juan Bautista, SONDIKA

Falleció en Sondika el día 8 de noviembre de 2003, a los 90 años de edad, habiendo recibido los Santos Sacramentos y la Bendición Apostólica de Su Santidad

Ingeniero Industrial
Adorador Nocturno Veterano Constante
Gudari del Batallón Otxandiano
Teniente del Estado Mayor del Ejército de Euzkadi

Delegado en el interior del Gobierno Vasco en el exilio
Presidente de Euskerazaleak
Académico de Euskerazaintza

NOTA: El domingo día 16, a las DOCE del mediodía, se celebrará la misa de salida en la iglesia parroquial de San Martín, de LAUKINIZ

“Euskerazaleak” alkartea'k samintasunez iragartzen dautse “Zer” aldizkari onen irakurle guztiai Iñaki Zubiri lendakariaren eriotza, eta beronen alde otoitza eskatzen dautse.

Olazar'tar Martin Lendakari-ordeak

ZER DABIL OR? (urrilla)

- Deustu'ko Ikastetxe Nagusia'n Erretore barria:Aita Oraa.
- Aita Santuaren alde otoitz egiteko eskatu dau Ratzinger kardiñalak.
- Bilbao'ri saria emon dautsoe, laterriko uririk osasuntsuena dalako.
- Lendakariaren ustez, Laterriak Euskalerrri'ri eskubi-deak kentzen dautsoz gaur.
- Beroak txangolaraiak ugaritu dauz Bilbao'n.
- "Kilometroak eguna"Gipuzkoa'n:70.000 lagun ikastolai laguntzen.
- Bagadad'en España'ko militar bat il dabe.
- Lantegietako arduradun euskaldunak Cuevas'en aurka,Ibarretxe'ren alde.
- EA'k eskari bi: "División Azul"ekoai laguntza kendu eta Franco'ren menpean kaltetuai lagundu.
- Bilbao'k 354.000 biztanle, urtean 211 euri-egun, 15.500 langabe, 108.000 berebil, 1918 udal-langille, 146.000 bizi-leku.

- Amianoak (zikoniak) etorri dira Urdabai'ra.
- Ibarretxe'ren esondapenaren alde %63 eta %81 eretxi-batzearen alde.
- Bin Laden'ek España'ren aurka ekintzak egingo dauz,au Irak'en aurka dagolako.
- "Naparroa oiñez" ospatzeko,egualdi oso txarra.Irunberri'ko ikastolako arduradunen ainbeste lan erdi-alperrik.
- Lendakariaren itzaldia Granada'n, Jimenez de Parga ta Felipe Gonzalez'egaz batera. Erritarren aldetik erantzun oso txarra artu dau.
- Atutxa'k Lege-Biltzarretik kanpora bialdu dau Iturgaitz,iru batzarretarako.
- Ibarretxe'k aurkeztu dau Lege-Biltzarrean bere esondapena.
- Gonzalo Nardiz il da:Lenengo Jaurilaritzan langintza'ko Sailburu.Jaurilaritza aretatik azkenengo jaurkidea izan da.

Olazar'tar Martin'ek

Lekaide-etxeak (Monastegiak) Euskalerrrian

Monastegiak antxiñakoak eta asko izan dira Euskalerrria'n. Gure Latxaga'k ondo aztertu dauan lez, gure Kapadozia Trebiño'n izan zan, baiña monastegi askoren lekua izan zan Baldegobia be eta Donemiliane-inguruan be bai.

VIII gizaldian 1000 lekaide-etxe egozan Iberia osoan eta eurretatik 200 euskalerrrian.

Gure monastegirik zarrena ta ospetsuena Okoizta edo Akosta'koa da, au VIII gizaldian bizi-bizi egoan eta Gaztela'ko Fernan Gonzalez sarritan etorten zan etxe orretara.

Monastegi'rik ospetsuenak eta beste asko euren menpean eukezanak oneik dira: Oña, Peña'ko San Juan, Naxera, Donemiliane, Seros'ko Gurutze Deuna, Leire, Iratxe.

Leire'ra VIII gizaldian Kordoba'ko Eulojio etorri zan eta asko goratzen dau lekaide-etxe au, asko ta onak diralako eta liburutegi arrigarria daukelako.

Monastegietatik zabaldu zan kristiñautzea Bizkai'ra. Monastegien artean jarri bear da Ziortza. Au da bakarra gotzaiñaren menpean dagona.

Ortik etorri dala gure kristiñautzea agertzeko, emen daukagu abadea izena eleizako arduradunari emotea eta auzo guztietan aurkitzen doguzan ermitak eta leikaide-etxe txikiak, izenak berak diñoan lez, badagoz VIII gizaldiko arrilanduak.

Olazar'tar Martin'ek

36'ko guda Bizkaia'n

36'ko gudaren azkena gutzat Bizkaia'n izan zan.

Franco'tarrak Madrid'era sartu nai izan eben baiña ezin. Orduan Bizkai'ko ekiñaldia asi eben: 37'ko martiaren azkenetan.

Egazkin eta kañoi guztiak onako batu ebezan, Alemania'ko Kondor lejioa eta italiarrak barru zirala: 60.000 soldadu (Gipuzkoa'n 7.000 baiño ez ziran ibilli), 200 kañoi, eun egazkin, eta euskaldunen aldetik 40.000 gudari, eun kañoi baiño gitxiago eta egazkin talde bi makalak. Ori dana geure begiak az ikusia da eta gogoan daukagu "abuelo" eritxon egazkin zarra. Otxandio-ondoan euen egazkin-zelaia.

Arin azpiratu ginduezan olako ezbardintasuna egoalako.

Franco Errogoiti-ganeko Metxika'n egoan dana zuzentzen.

Geuk entzunak dira Bilbao-gaiñera jauzi ziran lerkaien danbadak! Gauza larria da guda! Gero Bilbao'tik etxera oiñez.

1937'ko bagillean artu eben Sollube, dana sutan, eta Mungialdea igaro-ondoren, Burdiñezko Garrikoa ekiñaldi bitan eskuratu eben: maiatzaren 25'ean eta bagillaren 19'an, errietako eleizak apurtu ondoren: Mungia, Gatika, Maruri eta Gamiz'ko torrea. Or egin eban etoikeria Goikoetxea asmatzailleak planoak beste aldera eroanda, baina ez egoan orren bearizanik.

Gure guda Santoña'n amaitu zan. Italiarrakaz ituna egin eban EAJ'k baiña euskaldunak iges joiazala Franco'k atzetra ekarteko agindua emon eban eta gure gudariak espetxeetako bizi-modu larria izan eben.

Olazar'tar Martin'ek

SALMOAK

Salmo berriak kantatzeko Doinaua!

(1) *San Jaun*

Javn-goi-ko Ai-ta mai-te zai-
tu-gu ze-ru lu-rren E-gi-lle-a Jain-ko
se-me-a, mai-te zai-tu-gu guz-ti-
on Sal-ba-tzai-lle-a Javn Es-pi-ri-tu San-tu-a
ze-ra a-lai-ta-sun e-mai-lle-a gu-re
a-ni-man Se-na-rra ze-ra po-za
sor-tzen lan-gi-lle-a

27N. SALMOA

1

Au da artzaiak esan zuena
"Jauna askan oialetan"
Ikustean adoratu zuen
ausperturikan benetan.
Egun argitik eguardi pasan
an egon ziran izketan,
Birjiñak eman zien jateko
juaten ziran egunetan.

2

Ama Birjiñak dudatu zuan
Aurra zirkunzidatzeko,
Aita Jainkoak esana zion
lege ori betetzeko.
Senar Joseri eskatu zion
ontzi on bat billatzeko,

Aurrak ixurtzen zuan odola
osorikan artutzeko.

3

Zortzigarrego eguna zueken
izena jartzen ziena,
Ama Birjiñak eta San Josek
lendik jakinda zeukena.
Aingeruk esan, agerturikan
"Jesus da bere izena.
Bera zaintzeko zerura arte
degu Aitaren baimena".

4

Josek apaiza ekarri zuan
estalperaiño deituta,
Ama Birjiñak bere semea
zeukan besuan artuta.
Apaizak bere besuan aurra

ebakita odolduta,
pekatarizat pasa zan Jauna,
Jesus izena artuta.

5

Aurrak, besuan ebakitzean
miñez negar egin zuan,
baita Birjiña Mariak ere
Aurra ikusi onduan.
Bere Aitari eskerrak eman
zizkan Jesusek orduan,
gorputza eman ziolako gu
erositzeko munduan.

6

Belengo apaiz ura asi zan
eskribitzen liburuan:
"Jesus da bere izena" eta
negar asko egin zuan.
Esana zien: Igarle aundi
izango da au munduan.
"Zuen lagun naiz" eta limosna
ordaindu zien orduan.

7

Ama Birjiñak ukenduakin
sendatzen zion Aurrari,
sendatu arte bere besotik
etzion laga berari.
Amak eskatu aingeruari
agertutzeko kantari,
kintatu zizken zerutar doiñu
miñez zegon Semeari.

8

Aurrak besotik ixuri zuan
odola zuen artua,
kristal-ontzian barruan tela
izan zana txupatua.
Sarrera zuan zillarrezkua,
zan itxita gelditua,
Isabel santak biraldutako
diruakin pagatua.

28N. SALMOA

1

Ama Birjiñak bezekin ara
Erregeak zijuaztela,

Jose santuak estalpetikan
juatea obe zuela;
zeuden lekuan gaizki ta otzak
Ama-Semeak zeudela
Eleizan sartzera juan artean.
“Jose, mai dezun bezela”.

2

Ama Birjiñak esana zion
“Senar eta jaun nerea,
mende naukazu segituko izut,
egizu gogo zurea”.
San Migel eta San Gabriele
agertu gogo berea:
“Erregek dator adoratzera
emen Jaungoiko gurea”.

3

Iru Errege Jaungoiko Aurrak
billa etorri ziranak,
zira Persia, Arabia eta
Sabba lurretikan juanak,
Palestinako orientetarrak,
profetak lendik esanak,
Kristo Errege jaioko zala
señalatzean izarrak.

4

Iru Errege auk ziraden
oso gizon jakintsuak,
letzen zituen Jaungoikoaren
Eskritura sagraduak.
Zuzenak ziran aginduetan,
Berri Ona sinistuak,
irurak ziran “Kristo jaio da”
itz egiñak aingeruak.

5

Entzun ondoren atera ziren
aintza emanaz Jaunari
adoratu zuen espirituz
musu emanaz lurrari.
Nora zijuazten etzien esan
beren mende zeudena
artu zituen iru doaia
eramateko berari.

6

Urrea, intzentsua ta mirra
zeuzken doarik onena
artu zituen abereakin
morroiak eta jatenak.
Ikusi zuen izar argi bat

argitzen bide zuzenak,
irurak alkar billatu zuen
aurrak billa zijuaztena.

7

Izarrak argi egiten zien
egunez eta gaubean,
eta izar au gorde egin zen
Jerusalena sartzean.
“Nun da Errege jaio berria?
- galdetu zuen onean-”.
Izarra ikusita gu gatoz
au adoratu naiean.

8

Bertan bizi zan justizi gabe
Erodes errege zana,
bildur arrabiz jarri zan eta
jarri zuan erri dana.
Galdetu zien apaiz-eskribai
“Nun dago Kristo esana?”.
Erantzun zien Belenen eta
juan zan ikustera.

29N. SALMOA

1

Galdetu zien Erregeari
gaiztoz aparte artuta:
“Noiz agertu zan izar argi oi?”
jarri zan enteratuta.
Tranpaz biraldu zitun Belena:
Eta Aurra billatuta,
etorri neri au esatera,
gurtzeko ezagututa.

2

Iru Errege Jerusalendik
atera ziradanean,
billatu zuen beren izarra
argitu zien bidean.
Eldu ziraden Belena eta,
estalpea ikustean,
izarra sartu ta gelditu zan
Aurraren buru gaiñean.

3

Iru Erregek lendik zekien
Aur ura Jainkoa zala,
Jaun Espiritu Santuan obraz
Ama Birjiña zuala:
Jose santua bere senarra
an berekin zegualla;
billatu zuen Ama Birjiña
Aurra besuan zeukala.

4

Adoratu zuen auspezturik
Jaungoiko gizon egiña,
ezagutu zituen aingeruk
an laguntzen alegiña.
Zorionak eman zizken Amari
berentzat zan Erregeiña.
Erantzun zien: “Nere espiritun
Jaunagan det atsegiña.

5

Nere arimak bedeinkatzen
ta abesten du Jainkoa,
mundu osotik aukeratuta
zuek ekarritakoa.
Lengo santuak etzuten izan
ditxa au ikustekoa.
Lurrari musu eman deiogu
berak santututakoa”.

6

Iru Erregek izangu ziraden
pozikan lotaratuak,
ta ametsetan itz egin zien
Erregeari aingeruak:
ez biurtzeko Erodesgana,
zeuzkala asmo gaiztuak
berak errege jarraitzearren
Aurra iltzeko goguak.

7

Errege auk egun sentian
biurturik estalpera,
adoratu zuen Aur Jainkoa
auspezturikan lurrera,
Urrea, intzentsua ta mirra
doai auk eskeintzera,
ta Birjiñari zeuzkaten dudak
umildurik galdetzera.

8

Beste bidetik abiatu ziran
Erodes ez ikusteko,
eta izar bat agertzen zaie
bideak erakusteko.
Beren lurretan lan egin zuen
dotriña erakusteko,
Ama Birjiñak lagundu zien
beste mundura juateko.

**Aldalur'tar Justiñe
(Lekaine Klaratarra)
Gazteiz'en**

ZUMARRAGA´KO FRAI JUAN

Jakiña da Ameriketara erri-gizonakaz batera eleiz-gizonak joan ziralara eta sarritan ango inditarrak beartu egiten ebezala kristiñau biurtzera. Asko eta talde askotakoak izan ziran ara joan ziran lekeideak eta euretariko askok bai jakintza-arloan eta bai erlejiño-arloan lan ederra egin eben. Oneitariko bat dogu orain irakurleai aurkezten dautsegun Zumarraga´tar Juan lekaidea.

Mexiko´n lenengo gotzaiña izan zan, baiña ez batzuk esan daben lez, ezjakiña ta fanatikua.

Durango´n jaioa zan, 1468n. urtea baiño lenago, baiña ez dakigu ziur ez urtea eta ez eguna. Frantzisko´tar egin zan eta Arantzazu´n bizi, gero Balladolid´en be bai eta, eurak esaten daben lez ethezain edo guardian izan zan Avila´n, Concepcion´en erki-buru eta Ethezain Abrojo´n.

1527n. urtean Karlos erregeak korteetara deia egin eban Balladolid´era eta ostauz egon zan Zumarraga´k lekaide-jantzia jantzi eban lekuan eta an ezagutu eban lekaide au: erregea arrituta geratu zan Zumarraga zan lakoa zalako eta euskerea be ba-ekian lez, Bizkai´ko ta Naparroa´ko sorgiñen aurka ekiteko inkisidore izendatu eban.

Gogo bizi-biziagaz bete eban zeregin ori eta ori dala ta azterketa latzak izan dauz. Erregeak, oster, asko goratu eban eta Aita Santuari Mexiko´n lenengo gotzaiña izateko aurkeztu eban bere izena. Eta orrelan, gotzain sagratua izan baiño lenago joan Mexiko´ra.

Laster izan ebazan erasoak ango agintariakandik, oneik eleizako gauzetara sartzen ziralako. Erregearen aurrean agertu ebazan bere kezak. Lekaide txomindarrak be aurka eukazan. Erregeak, oster, 1528n. urteko urterillaren 10n. egunean Mexiko´ren babesle izendatu eban.

Ez zan zeregin ona, asko ziralako inditarren salakuntzak, ondasunak kentzen eutsezalako, euren andrak izorratzen ebezelako, lan larregiak gaisora eta eriotzara eroaten ebezelako. Inditarrak gudan atxillotuen tratua emoten jaken.

Arerio asko izan ebazan, batez epailarien artean, baiña ez zan ikaratu eta erabilten eban indarra eskomunikapena zan. Iñoz urkatu egingo ebela be zemaitu eben.

Hernan Cortes izan zan arazoa erregeari agertu eutso-na eta gotzaiñak be bialdu eutsozan erregeari bere

barriak mariñel euskaldun baten bidez. Onegaz euskeraz egiten eban.

Dana dala, Zumarraga´ri erregearen aurrera deitu eutsoen eta beste lekaideen agiriakaz joan zan erregeagana. Mexiko´ra biurtu zanean nasaigo egin al izan eban bere ebanjelizatze-lana: Aita Santuak gotzain sagaratu eban.

1536n. urtean asi eta 1543n.´era arte, an, Inkisiziñoaren nagusi izan zan eta 152 epaibide izan ebazan birauraren, protestanteen, judiz-zaleen, guzurrezko jainkoen gurtzailleen, aztien, sorgiñen, bigamoen, eta okerreko fedunen aurka. Ba-ekian inditarrak irakasten jakena ez zala ona, eta euren jakintza zarra zaindu bear zala uste eban eta orren gaiñean egin Eleizea baiña gogorregia zan idolatriaren aurka. Asko jarri jakozan aurka eta azkenean ardura ori kendu egin eutsoen.

Baiña bera ona zan inditarrentzat eta III Paulo Aita Santuak be goratu egin eban eta onek 1547n. urtean Mexiko´ko Goi-Gotzain izendatu eban.

1548n. urtean il zan.

Beti bizi izan zan txiro eta aberastasunak alboratu egiten ebazan. Oso erlijiño-zalea zan eta Guadalupe´ko Andra Maria agertu zanean, lekuko izan zan.

Egin eban lanik ederrenetariko bat irarkolea Mexiko´ra eroatea izan zan, inditarrak eresa irakasten eutsen, liburutegi aundi bat sortu eban eta españatarrak naiz inditarrak jakitun izatea nai eban eta 1536n. urtean Ikastetxe Nagusia (Unibersidadea) eskatu eban Mexiko´rako. Inditarren izkuntzak ikastea idartu eban eta olako izkuntzetara Biblia itzultzea nai eban.

Beti agertu zan euskaldun lez eta euskeraz berba egiten zan zalea. Iñoz ez eban aitzu bere jaioterria eta beti inguruan artzen ebazan euskaldunak. 1527n. urtean ara eldu zanean ango euskaldunak indar aundia artu eben eta euskaldunak ara eroaten be alegindu zan, batez be meatz-zaleak eta itxas-gizonak. Legazki´gaz eta Urdaneta´gaz be izan ebazan artu-emonak.

Amaitzeko esan dagidan Zumarraga´tar Juan´ek euskeraz bere amari idatzitako eskutitz bat dagoala gure elerti edo literaturan.

Olazar´tar Martin´ek

BASERRIA

Geure inguruko basetxeak ezagutzen doguz eta guztiak dirala olakoak uste izaten dogu, baiña ori ez da orrelan.

Bizkaia'n atzeko aldean kortea ta laztategia daukaz eta aurrean eskatza eta gela bat edo bi eta karrajua beian eta kamarea goian. Baiña Arratia'n ez da orrelan banatzen basetxea: aurrean beian abereak eta goian norkiak, orrelan neguan abereak goia berotzen dabe, baiña beti dira osasunaren kaltegarri.

Teillatua Bizkaia'n ur bitarakoa da baiña Arratia'n iru uretarakoa. Aurretik mailladia dauka bizilekura igoteko.

Lenengo egin ziran basetxeak zurezkoak ziran eta banaka batzuk geratzen dira. XVI gizaldian asten dira arrizkoak. Lentxuago.

Basetxea zabala ta apala da, edozein artzeko modukoa eta gaur beste era batera eratzen dira eta barruan lau bizileku gitxienez atera daitezke.

Gure lege zarrak diñoanez, etxea seme edo alaba bateri emon bear jako osorik. Orrelan ez da lurra arlo txikietan zatitzen Galizia'n jazo dan lez, eta guztiak txiro biurtu dira.

Baiña etxetik joan diranak naiz etxean dagozanak ez dabez galtzen eskubideak: logelearena, maiarena, illobiarena...



BALPUESTA'REN EDESTIA

Guztiok dakigu Gobiaran edo Valdegobia non dagoan: Angosto'tik urrean, gure Araba ta Burgos'en bitartean. Eta aran orretan daukagu Bizkaia'rentzat garrantzi aundikoa dan Balpusta, gaur erri edo baserri txiki bat. Baiña benetan gogoangarria. Guztiok ikusi bear geunke.

Oraintxe dira milla urte Balpuesta'n "kartulario" bat idatzi zala eta gaur edesti-arloko billatzaille guztiak dagoz agiri orreri begira, bear ba'da orixe dalako gaztelearean seaska.

Loizaga'ko Sauturnino Ruiz, Arantzazu'ko frantziskotarrak agertzen dasku emen agertuko dogun edesti eder au (Ikusi Deia 2003-10-05, 66n. orrialdean).

Agiri au Donemiliane'koa baiño zarragoa dala diño.

Gaur Balpuesta'n amaika lagun baiño ez dira bizi. Eta edesti au zelan amaituko ete dan zain dagoz.

Burgos'tarrak erri au aitzuta dauke, arabarrak, osterara, ardura aundiz begiratzen dautsoe.

Balpuesta izan zan Euskalerriko lenengo gotzaindegia eta Nerbioi ibairaiño eltzen zan ango gotzainaren eskubidea.

Baiña jakingarriak erdi galduta egon dira eta orain asi da billaketa sendoa, baserri onen 1200n. urtea ospatzeko gogo biziagaz.

Balpuesta'ko kartulario onek 184 agiri daukaz aldean, 804n. urtean asita XII gizaldira artekoak. Eta agiri orretan emoitzak eta salerosketak agertzen dira. Agiri baten oillo bat emotea be agertzen da.

Arabiarrek erdi-ugartera Jibraltarretik sartu ziran, jentea iparralderantza etorri zan eta orregaitik sortu zan 804n. urtean Balpuesta'ko eleizbarrutia, II Alfonso erregea arduradun zala. Eta or izan ziran artxidiano bi Aita Santuak izatera eldu diran, VI Alejandro eta VI Adriano.

Orduan Balpuesta'n 29 eleizgizon eta 15 kanoniku egozan.

Baiña zenbat auts edesti eder onen gaiñera!

Eleiz-inguru aretan dana agertzen da apurtuta ta jausita. Lotsagarri! Torrea zerbait konpondu da, klaustroa jauskor dago. Datorren urtean 1200n. urtea ospatzeko gauza arrigarriren batzuk ikusiko doguz.

Urte bi dira Asier eta Marta an ezkondu zirala, 50 urte itsita egon-ondoren. Alabatxu bat izan dabe eta sendi au gogotsu dago kolejiata oneri eusteko edo laguntzeko: Bazkun bat sortu dabe eta New York'etik be bazkideak daukez.

Egun beratako DEIA'n Emiliana Ramos'ek dakar beste idaz-lan bat. Ona emen labur gaia:

Balpuesta'k aldi illun bat argitzen dau: Argi ori atearateko ardurea artu eban Emiliana'k Eusko Ikaskuntzak eta Araba ta Burgos'ko aldundiak eskatuta eta idatzi eban liburuan kartularioaren balioa agertzen dau or agertzen diralako gastelerearen asierea eta euskerazko toki-izen asko. Benetan aundia da gastelerearen sorkuntza argitzeko, Donemiliane'ko agiriakaz batera emen agertzen dana. Zori txarrez Balpuesta'k IX, X eta XI gizaldietan garrantzi aundia euki eban baiña gero galdu egin eban, Donemiliane biziago geratuta. 1200n. urtea ospatzean, uste dogu, onartuko da daukan garrantzia.

Irugarren agiri bat aztertu bear dogu, barri au osoan emoteko, egun beratako DEIA'n Franzisko Blanco'k idatzita datorrena.

Idazle onek argi agertzen dau Balpuesta'n aspaldion izan dan galtzaitea ber-eskuratu egin bear dala, al dan neurrian.

Eleizpean egoan irudi errimaniko bat, berrogeita amargarren urte inguruan saldu egin eban parrokoak 700 pezetagaitik. Gaur Holanda'n dago eta zazpi milloi baiña geiago balio dauz. Orain gauzak obeto estutu dauz Balpuesta'ko alkarteak, Frantzisko Blanco buru dala, olako ezer jazo ez daiten. Urteetan egin da lan, ori lortzeko. 250 bazkide gara, lurralde guztietakoak orreta-

rako berbea emon dogunak. Egia esan, Burgos'ko agintarien aurrean ez daukagu indar aundirik. Eurak izan bear leukee lenengo arduradunak, baiña aitzuta gaukeez. Eusko Jaurlearitzak obeto laguntzen dau Araba'ko aldundiagaz eta Eusko Ikaskuntza'gaz batera.

Alegiña egin dogu arazo onetara ezelako politikarik sartu ez daiten: Eretxi askotakoak daukaguz eta edonondik datozen laguntzak onartzen doguz. Izan be, Gaztela'rentzat baliotsua da Balpuesta baiña bai Euskalerrarentzat be, Euskalerriko lenengo eleizbarrutia au izan zalako. Emen agertu diran gaztelerazko eta euskerazko itzak Donemiliane'koak baiña antxiñagokoak dira. Ez dago zertan eztabaidarik izan Donemiliane'gaz.

Dana barriztatzeko bideak artuta dagoz eta gabonetan ipiñiko doguz leiar edo bidrierak, baiña lan aundia da egiteko dagona. Saldu diran gauza baliotsuak ez dira eskuratuko, baiña geiago ez dira galduko olako gauzak aurrerantzean.

Amaitzeko, sarritan izan gara Balpuesta'n baiña ez dogu izan eleizearen barrua ikusteko aukerarik. Orain ikusi leikela diño e eta giltza bertako andra batek emoten dauala. Asko be ez dira ta aurkitu al izango da. Ez itzi ikusi barik!

Olazar'tar Martin'ek

GABON ZORIONTSUAK ETA URTEBARRI ONURATSUA GUZTIOI!!!

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erooten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

OTO ETA POTOTO

PRIMERAN SEGUNDAN...

Primeran segundan etorri gaituk terzerako billetea-kin...

Zion Pototo´k Oto´ren aurrean. Orduko trenak terzera be baeukien. Pototo zirika ebillen, Oto´k ezkonberritan gertatu zitzaiena esaten ote zuen. Baña, Oto maltzurak berbarik be ez.

Ixilik.

Guk, ordea, gertatua badakigu ete esan egingo dogu.

Ezkonduta gero, jakiña, or zear joan bear omen da mundu apurtxo bat ikustera... Asko ikusiak ez ziran eta asko ikusiak ere ez.

Etxean ez bezela jantxi bear, kanpora joateko eta egun artan jantzi zitun lendabizi kantzontzilloak, praken azpitik, Oto jaunak.

Maleta berria... Min ematen zioten zapata berriak... Txamarra berria... Dana zan berri egun artan.

Trenerako txartela atera zuten “terzerakoa”, kuartakoa ez zegoelako. Terzera irugarrena zala bazekiten, ez ziran ain eskasak. Baña, dana esan bear da, trenean ez ziran sekulan sartu eta gauzak nola ziran ondo jakin ez.

Trena estaziora eldu zanean, muturretik asi ziran kontatzen:

- Bat, bi, iru... Auxen da gure bagoia.

Besterik gabe, sartu ziran barrura. Apain-apaiña iruditu zitzairen; baiña eurak ere ez al zijoazen apain eta lirain? Ispilluak aurretik, ispilluak atzetik... Eserlekua ere terziopelozkoa, bigun-biguña...

Tolosa´tik igarotzean, ango baratzak ikusita, Oto´k emazteari:

- Joxepa, ara or asa ederrak!

Beasain eta Zumarraga´tik gora dijoa trena eta asi dira Otzaurte´ko tunel luzeak... Illunpe artan, Joxepa´k Oto´ri.

- Txongokin jateko.

- Zer?

- Tolosa´ko azak.

Badator kepizdun gizona txartelak zulatzera:

- Billetes!

- Tori gizon, baña zulo larririk ez egin; ez alperrik galdu...

- Estos billetes son de tercera.

- Terzera tres: uno, dos, tres...

Zion Oto´k leiotik kanpora begira, eurok irugarren bagoian sartu zirala, ezagutu erazi eziñik eta berekiko: “Euskalerrria´n gaudela pentsatzea ere...”

- Este billete es de tercera y ustedes se han metido en primera!

- Primeran goaz, orixe bai, baña irugarren bagoian sartu gera...

- Vengan ustedes conmigo.

Itzik geiago erantzuteke, maletak artu eta badijoaz gizonaren ondoren...

Nora eramango eta potijo, saku, saski, konejuz beteta-ko bagoi zartar batera, arraioa...! Platano-azalak lurrean eta zurezko eserleku gogorak...!

- Aldaketa ederra egin diñau...!

Jarleku azpian maletak sartu, ez bait zegoen beste toki-rik libre, eta ertz batean eseri dira biak. Terziopeloren ondoan, gogorra dala egurra, arranopola!

Ordu batzuek badaramazkite bultzian. Egun artako gora-beerak aundiak izan eta emozioak edo, ez dakigu zergaitik, tripetatik mogituta zijoan Oto.

Jeiki eta badoa komunera.

A zer lasaitasuna!

Badator pozik eta alai bere eserlekura... Baña, ezar-zearekin batera, jeikitzen da berriro:

- Joxepa, berriz ere primerako bagoian sartu gera... Eserlekua bigun-biguña dago...!

- Eserleku biguña? Bai, bai... Eserlekua iretzako nola egongo dan ez zekiat; baña, ik dakarsken usaiña ez dek oso atsegiña...!

- Eneee... Sekulan eraman ez ditudan kantzontzilloak kentzea aaztu...!

ZULOA GALTZERDIAN

Ezkonberritako ibillaldia Zaragoza´raiño eldu zan. Euskaldu ostatua zalata... bertara. Egi egia esan, ostatua izateko elegantetxoa iruditu zitzairen, baña:

- Ez gera berriro alkarrekin ezkonduko eta bost duro gora-beera... Euskaldunak dira, beintzat... Zer deritzazu, Joxepa?

- Garestia izango dala.

- Zer egingo degu ba... Etxean estuxeago ibilli bear-ko...

- Ala iruditzen ba´zaizu...

Botones batek maletak eskutik kendu... aszensorean sartu, botoi bateri eman da.

- Eneee...! Auxe kili-kili sabelean...!

Gora eta gora, egazkiñan bezela... Alako batean gelditu da kajoi zaar ura eta bere atea iriki dira:

- Número 314.

- Au al da gure logela?

- Bai, jauna. Emen dezute "cuarto de baño" a ere.

Bi erreal eskupeko eman zion Oto jaunak morroiari. Au joan zanean eta bakarrik gelditu... ura ikara eta zarrara biotzean...! Ango lujoa! An zeuden salan eta gauzen erdiei ez zieten antzik ematen zertarako ote ziran.

Oto gizajoari oraindik ere tripetako mogimendu ez zitzaion baretu eta sartu da "cuarto de baño" ra. Ondo begiratu arren, ez zuen treneko zuloaren antzekorik iñun billatzen... Baserrian bazuten komuna ikullu gañean eta zulotik olloak ere ikusten ziran astarrizan. Treneko zulotik ere trenbidea ikusi zuan... baña, emen ez trenbide eta ez korta. Emen ez zan orrelakorik ikusten:

- Nun ote dago emen zulo ori...?

Ezin zeikean geiago aguantau! Larritasun aretan, zer egin? Oto'k beti billatu oi du bear dan maratilla. Amak esaten ziona:

- Ik ainbat ate, ainbeste maratil.

Oraingo maratilla erreza da:

- Eskubiko galtzerdia kendu eta bertan egin.

Gauza errezagorik...?

Baña askotan, korapillo baten ondoren beste bat agertzen. Ona korapillo barria:

- Galtzerdian egin diat eta orain galtzerdiari zer egin?

Ate berriari maratilla berria. Korapillo berriari solozio berria:

- Galtzerdia leiotik bota eta kito.

Pentsa bezala egin.

Artu eskuan galtzerdia, jira-buelta bat eman aidean besoari urrutirago joan dedin, eta or zijoak galtzerdia bala baten antzera, beko lora-artera.

Eta kito.

Nundik kito? Bañutik irtetzerakoan, ordea...:

- Eneee...! Zer da or goian dagoen zer ori? Bere zorigaitza! Galtzerdiak puntan zuloa...! Bait, ba, anbaste egunetan gabiltza etenik gabe... oñeko beatz lodiak azkazalak luze... eta ara orain or goian okerra. Zer egin? Morroiak zertarako daude?

Ots egin dio morroiari:

- Bost duro emango dizkizut, zer ori ortik kentzen ba' dezu.

Morroiak gora begira arriturik:

- Bost duro...? Amar emango dizkizut nik zuri, esaten ba' didazu, or goiko zer ori, or goian, nola egin dezun.

ORDU BATA

Larunbat arratsaldean taberna-zulo guztatzen zitzaion Oto jaunari.

Joxepa'k errietan egin arren, segi bereari.

Asko baño geiegotan ez zeukaten tabernan zer egin aundirik; baña gorputza nekatzen danean, egotea, bera ere, atsegingarri izan oi da.

Egun aretan ala izango zan.

Oto ta Pototo an zeuden, alkarri begira, zer esan aundirik gabe.

Apari legea egin ondoren... egonean egon.

Aspertuta?

Booo...!

Eliz-torrean kanpaiak ordua jotzen... Oto, eten bearean, orduak entzuten:

- Bat... bi... iru... lau... bost... sei... zazpi... zortzi... bederatzi... amar... (Geroz eta ardura aundiagaz) amaika... amabi... (Gelditu da Oto suspensuan batean). Eneee... Ordu bata zala uste nuen!

**Anes - 1968
(Deba'n)**

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

NAFARROA OIÑEZ IRUNBERRIN

Aurten NAFARROA OIÑEZ DELAKO EGUNA Irunberrin ospatzea egokitu da. Joan dan urtean Tuteran ospatu genuen eta datorren urtean Lizarran ospatuko da. Gure edesti berrian garrantzi handia betetzen du egun onek: gure artean dirua biltzen da, ikastolen bearrentzat. Andereñoak ordaintzea naiko lana ematen du.

Irunberriko ikastola ez da aundienetakoa Naparroan: ba ditu 86 ikasle, 1500 biztanleko erri kokor onentzat. Ala guztiz ere estu ibilli bear; zazpi irakasleek ematen die izkuntzaren urratsak.

Txikienetakoa dalako ez du esan nai erdi aztua daukatela beste ikastola aundien ondoan. Beste danen onduan berak konturatzen ziran, Naparroako saietzean eguzki sortzen dan aldetik euskeraren babesa dirala. Ba dakite beren nortasuna ez galtzearen lan aundiak, Ez nolanaikoa bete bear: korapillo galantak izan dituzte Naparroako edestian. Ez dira berri danak onak. 1512'garren urtean atzerrira bota zituztela azken-agurra Naparroari eman zioten Irunberrin. Emendik azken agurra ematen zieten Joan eta Katalinak bidali zieten. Emen Naparroako ona beti dute amets. Ez dute Naparroa saltzeko. Irunberri naiz erri kokor bat izan, bere ekintzak ortxen daude Euskal-erriaren alde. Gaurko "Naparroa Oiñez" eguna antolatzeko urte Naparroako erregueak ementxen arkitzen dituzte ziñezko gizasemeak. Lurralde eder orretan, naiz erri txiki bat izan, ekintza garbiak ortxen daude begien aurrean.

Urte bete bateko ekintzak egin dituzte lanean egun ori antolatzeko: Egun berexi orretan makiña euskalzale bildu zaizkie. Egun eder bat igarotzeko toki berexia izaki; Antxen dago Arbaiun eta Irunberriko zintzurak, baita ere Irati ibaiaren urbiziak. Antxen daude ere iri zarren aztarnak. Orreraño iristen zan etsai indartsuaren kemena.

Gizaldietan borroka latz bateri eutsi diote gogotik. Joan dan gizaldian galdu zuten euskara erri nortasunaren ezaugarri. Zorioneko euskeraren berpizteak arnas berri nabaritu zuten, egitazko nortasunaren abeak.

Giro orretan zabaldu zuten deia Euskal-erri osora. Euskaldunak berriz lurralde danetik bildu ziren,

euskaldunen nortasuna, bertatik bertara, zer den jakiteko.

Irunberriko ikastolari buruz, 1998-06-05 on Diario de Navarra delako egunkarian idazlana agertu nuen. Ortzen esaten zaigu gaurko ikastolaren berpiztea arri-garrizko gertaera dala; erri txiki onetan nolanaiko indarra dauka; gaztetxo geienak euskaraz ikasten ari dira. Aurtengo "Nafarroa oñez" delako egun onetan, goizian goiz, egun orren mezua; ba zijozten Irunberri-runtz bederatziterdian 225 autobus ta bi milla berebil, danetan 22.000 euskerazaleak. Jai ortara 9.000 berebil zijoztela guardia zibilak bidali zituzten atzera beste 43.000 euskalzaleak (43.000 + 22.000) 65.000 gizaseme.

Ekaitza latza erregue. Zerua iriki zan eta euri jasa etengabe; ura goitik bera, lokatza ugari. Arratsaldian ebia atertu zuen eta Irunberrin jende geiago bildu zan. Gu berriz garraldan bazkaldu ondotik ortxen giñan Irunberrin bostetan. Egun eder ori ain ongi antolatua zutenak onelako ekaitza ikusita, ao zabalik gelditu ziran. Ekaitza txar arek jaia sortzailleari ikaragarritzko buruausteak ekarri zizkien. Uste zuten irabaziak izango zituztela eta or galera galantak azaldu.

Egun ortan bertan jaia antolatu zutenak, galerak ordaintzeko anai-artekeo laguntza eskatu zien beste ikastoletakeo zuzendariei. itxuraz agertu zuna, danen artean galerak ordaindu bearra. Anaiartekeo laguntza eskatu zien. Naiz asko galdu anaitasuna indar aundiakin sortu zan: erria irabazle, euskara gora. Egun onetan ikusi zan erriak agertzen dion maitasuna euskarari: jo ta ke aurrera egin bearra. Irunberrin euskalzaletasuna handia sortu da sendietan: ikastolak giza giroa eltzen du.

Lendik ba zeukan ikastolak Saraitzuko ibarran itzala handia; Saraitzutik Irunberrira ezkontzera zijozten neska gazteak etxeko andre ziñezkoak, erri berexia zan ortarako. Orain emendik zabaltzen dira inguruetako errietara euskal dantza taldeak, baita txistulariak eta pelota jolasak erria beti zutik izateko. Erriaren euskal maitasuna ain ederra delako, porrot aldia irabazi garbian biurtuko dute. Ara ba Euskal-erria sentsu onez ibilliko da, beti aurrera.

LATXAGA

ERANSKINA 2002-2003 IKASTURTEA

DIALEKTOLOGIA ETA ETNOLOGIA LEHIAKETA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA - LEHEN ZIKLOA

1. SARIA:

Lana: "Arantzako dendak, orain dela 50 bat urte"

Egilea/k: Leire Mitxelena Gamio
Aitziber Lizardi Mutuberria
Ikastetxea: Arantzako I.P.

2. SARIA:

Lana: "Baserriko bizimodua"
Egilea/k: Bianditz Narbarte Escudero
Ikastetxea: Andres Narbarte Xalto I.P. Goizueta

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA - BIGARREN ZIKLOA

1. SARIA:

Lana: "Auzolana"
Egilea/k: Joanes Lizarraga Olano
Ikastetxea: Amazabal" DBHI. Leitza

2. SARIA:

Lana: "Aitzekungo bizie"
Egilea/k: Unai Jauregi Rekalde
Ikastetxea: Lekarozeko DBHI

BATXILERGOA

1. SARIA:

Lana: "Ameriketako bizimodua"
Egilea/k: Gabriel Garmendia Migeltorena
Ikastetxea: Lekarozeko B.H.I.

2. SARIA:

Lana: "Kostunbriak"
Egilea/k: Maider Atxa Agirre
Ikastetxea: Lekarozeko D.B.H.I.

LITERATURA EUSKARAZ

LEHEN HEZKUNTZA - HIRUGARREN ZIKLOA MODALITATEA: IPUINA

1. SARIA:

Lana: "Maria eta Eneko"
Egilea: Xumar Bakero Olaizola
Ikastetxea: Andres Narbarte Xalto. Goizueta

2. SARIA:

Lana: "Gnomoak eta Julen"
Egilea: Anxo Albisu Sanchez
Ikastetxea: Andres Narbarte Xalto I.P. Goizueta

3. SARIA:

Lana: "Xapi katu beldurtia"
Egilea: Zumaia Arizabaleta Alcalde
Ikastetxea: "Lizarra" Ikastola

MODALITATEA: NARRATIBA

1. SARIA:

Lana: "Pitxitxi antxumea"
Egilea: Jenny Olano Zabaleta
Ikastetxea: "Erleta" de Leitza

2. SARIA:

Lana: "Sagar majikoa"
Egilea: Zuriñe Fernández Tulebras
Ikastetxea: "Lizarra" Ikastola

3. SARIA:

Lana: "Animalien mundua"
Egilea: Maddalen Jiménez Andrés, DNI: 44558041A
Ikastetxea: "Labiaga" Ikastola

MODALITATEA: POESIA

1. SARIA:

Lana: "Gaua"
Egilea: Endika Iriso Saint-Esteben
Ikastetxea: Tafallako Ikastola

2. SARIA:

Lana: "Alaitasuna"
Egilea: Luna Sumi Blanco
Ikastetxea: Tafallako Ikastola

3. SARIA:

Lana: "Zeru maitea"
Egilea: Gorka Irigarai Leoz, DNI: 44644089
Ikastetxea: Tafallako Ikastola

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA - LEHEN ZIKLOA

MODALITATEA: IPUINA

1. SARIA:

Lana: "Arruzpiko sorginak"
Egilea: Aitziber Lizardi Mutuberria

NAPARROAN

Ikastetxea: Arantzako I.P.

2. SARIA:

Lana: "Arkimedesi eskerrak"

Egilea: Ziargi Etxarte Moreno

Ikastetxea: Biurdana DBHI

3. SARIA:

Lana: "Eta ni zer?"

Egilea: Uxue Zudaire Epalza

Ikastetxea: "San Fermin" Ikastola

MODALITATEA: NARRATIBA

1. SARIA:

Lana: "Nire biziko hilabeterik txarrenaren kronika..."

Egilea: Lorentxo Zabala Goizueta

Ikastetxea: Andres Narbarte Xalto I.P. Goizueta

2. SARIA:

Lana: "Zoriontsu izateko bidai luzea"

Egilea: Garazi Zabaleta Urkiola

Ikastetxea: "Amazabal" Leitzako DBHI

3. SARIA:

Lana: "Mulai"

Egilea: Asier Zabalza Larreta

Ikastetxea: "Biurdana" DBHI

MODALITATEA: POESIA

1. SARIA:

Lana: "Ene maitea"

Egilea: Ion Etxabarri Pérez

Ikastetxea: Tafallako Ikastola

2. SARIA:

Lana: "Gure basoa"

Egilea: Arkaitz Iraizoz Olaetxea

Ikastetxea: "Biurdana" DBHI

3. SARIA:

Lana: "Doktorea"

Egilea: Eneko Diaz Nieto

Ikastetxea: "San Fermin" Ikastola

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA - BIGARREN ZIKLOA

MODALITATEA: IPUINA

1. SARIA:

Lana: "Bizitzaren joan-etorriak"

Egilea: Naxara Meoki Iturria, DNI: 44611541M

Dirección: Santiago kalea, 47-2. B 31700 Elizondo

Ikastetxea: IESO de Lekaroz

2. SARIA:

Lana: "Azken gudaria"

Egilea: Gabriel Garmendia Migeltorena

Ikastetxea: Lekarozeko DBHI

3. SARIA:

Lana: "Frakasatu baten asteburua"

Egilea: Juan Idoy Zubiri, DNI: 44643138

Dirección: San Martin de Unx, 20-2. B. 31300
Tafalla

Ikastetxea: Ikastola de Tafalla

MODALITATEA: NARRATIBA

1. SARIA:

Lana: "Istorioaren muina"

Egilea: Amaia Caballero Guillén

Ikastetxea: Tafallako Ikastola

2. SARIA:

Lana: "Karbala"

Egilea: Alaitz Gonzalez Ardanaz

Ikastetxea: Tafallako Ikastola

3. SARIA:

Lana: "Loitzune ala Goreti?"

Egilea: Maitane Ezkurdia Galarraga

Ikastetxea: Etxarri-Aranazeko Ikastola

3. SARIA:

Lana: "Bihotzeko mina"

Egilea: Edurne Irañeta Andueza

Ikastetxea: Etxarri-Aranatzeko Ikastola

MODALITATEA: POESIA

1. SARIA:

Lana: "Ortzadarra"

Egilea: Garazi Arrula Ruiz

Ikastetxea: Tafallako Ikastola

2. SARIA:

Lana: "Odol beltza"

Egilea: Amaia Caballero Guillén

Ikastetxea: Tafallako Ikastola

3. SARIA:

Lana: "Txoria eta larrosa"

Egilea: Maitane Casal Irigarai

Ikastetxea: Tafallako Ikastola

3. SARIA:

Lana: "Salatu ezazu ozenki!"

Egilea: Maitane Ezkurdia Galarraga

Ikastetxea: Etxarri-Aranatzeko Ikastola

Xole Erbiti

LEGE ZARRA

LEGE ZARRA (10): EZKUTATZAILLEAK

I LEGEA: ESKUTATZAILLEAK

Baita esan eben: Bizkaia'n salatu diraneta deia egin jaken gaizkilleak urrenokotzat salatu dirala iragarri ezkerro, estaldu egiten dirala eta epaia eleiz-atean iragarri ba'da, olakoa bere etxean iñok ez dagiala ezkutatu eta jaten emon edo lagundu be ez, baiña olakoa epaitu baiño len ezin daikela ezkutatzailletzat artu ta zigortu eta bestelako epairik emoten ba'da, utsa izan daitela.

LEGE ZARRA (11): ERRI-ESPETXEAK

I LEGEA: ESPETXE BI, NOR ZAINZAILLE ETA PRESTAMERUAREN ESKUBIDEA

Baita esan eben: Bizkai'ko espetxea leku bitan izan daitela, bata nagusia Gernika'n eta beste korrexidorea bizi dan lekuan. Eta olako lekuetan prestameruak etxea euki dagiala, espetxeratua ondo zaintzeko eta katigu-zain on bat izan dagiala.

II LEGEA: DEITUAK NAI DABEN ESPETXERA AGERTU LEITEKEZ

Baita esan eben: Aitaturiko leku bietan deitua izan dan edozein bizkaitarrek berak nai dauan lekura joateko eskubidea daukala eta korrexidoreen bere aurrera ekarri lez autorpena egiteko.

III LEGEA: KATIGUEN JANAREN ETA OGEAREN ORDAIN ZER ESKURATU DAIKEN

Baita: Agertu dan espetxeratuari jana ta ogea emoteko arazoak izaten dira eragiten dabena baiño geiago eskatzen jakelako. Jatordu bakoitzeko amabi marai baiño geiago ez dagizala artu, sagardoa be barru dala, baiña ez ardaa. Eta ardaa nai ba dau ordaindu dagiala jatordu bakoitzeko amabost marai kontuan ezarrita. Katiguak jana berak ekarten ba'dau, ogearen ordain iru marai eskatuko jako. Korrexidoreak astero kontuak emongo dauz zapatuoro egiten dan ikustaldian eta espetxeko liburuan oarpena ezarri. Ogea espetxeratuak ekarten ba'dau ez dauz ordainduko iru maraiak.

IV LEGEA: LEGE-AUSTEA ZELAKOA ESPETXEA ALAKOA

Baita: Espetxeratuak egin dabezan lege-austeak ezbar-diñak diranez, erio-zigorpean ez dagozanak, dagozanen besteko oin-burdiñak eukitea ez dala bidezkoa.

V LEGEA: LEGE-AUSTE BAT DAUKANAK EZ BESTE SALAKUNTZA BAT

Baita esan eben: Zigor-azua dala-ta Gernika'ko zuz-pera deitua espetxera agertzen ba'da, auzi ori erabagi arte beste lege-auste bategaitik iñok ezin leikio deitu.

VI LEGEA: ESPETXERATUAK TXARTO ZAIN-DUTA EGON DIRALAKO JOAN

Baita: Deituta azaldu diranak, prestameruaren edo merinuaren menpean dagoz eta joan egiten ba'dira txarto zainduta egon diralako, espetxeratua ilgarrri ba'zan, jagolea bera il daitela eta jagolearen nagikeriagaitik izan ba'da, au urtebetean katean egon daitela. Eta katiguak zorra ba'eukan, jagoleak ordaindu dagiala.

VII LEGEA: AUZIBIDEAREN AGIRIA ZELAN EMON KATIGUARI

Baita esan eben: Katiguak auzibidearen bir-idazkia eskatuko ba'leu, epaikariak emon eragin dagiala, gaia eta lekukoak agertzen dirala.

VIII LEGEA: GUZTIAK AGERTU EZIN, ZELAN EMON BIR-IDAZKIA AGERTUAI

Baita: Deituak asko izan eta batzuk baiña etorri-ezin, len-idazkia ez emon, aldakia bai.

IX LEGEA: OBENDUNA BERE BURUAREN ALDE: EGIZTABIDEAK

Baita: Errudunak bir-idazkia beraganatuta, bere burua aldeztu leike, eta epaikariak onartu dagiala, eta errudunak bere lekukoen akatsak agertu leikez eta bere burua zurrizten ba'dau, egilleak berari dagokiona agertu dagiala eta dana aztertuko dau epaikariak.

X LEGEA: AUZI BATERA EZ EKARRI BESTE AUZI BATEKO AUZI-GAIRIAK

Baita: Alderdi batek ez dagiala ekarri amaituta edo amaitzeko dagoan auzitik egiztagarririk.

XI LEGEA: ERRUDUNAK LEN AGERTURIKO LEKUKOAK BA'DAKAZ, ZER EGIN

Baita: Errudunak bir-ekarri dauzan lekukoak oizko bidezkotzat izan daitezela, eta gero gora-deirik izango ba'litz, errudunaren lekukoak egiztagarri izan daitezela.

XII LEGEA: AUTORMEN EGIN EBEN LEKUKOAK, OBENDUNAK ESKATU EZKERO

Baita: Obendunak eskatuko ba'leu beste auzi bateko lekukoak ekarte, entzun dagitsela eta arretaz aztertu lekukoak.

XIII LEGEA: DEITUAREN IGESA ZALAN SALATU BEAR DAN

Baita: Deitua ogetamar egunean zugazpera agertu ez ba'da, igesa agertzea eskatu bear dautsola egilleak epaikariari eskribuaren aurrean. Eta salakuntza ori egin ez ba'dau, utsa izan daitela eta beste dei bat egin dagiala nai izan ezkerro.

XIV LEGEA: IGESLEA ZUGAZPERA EZ DATO-RRENEAN, ZER EGIN

Baita: Igeslaria orrelan salatu ezkerro, beste egun baten salataria epaikariaren aurrera agertu daitela eta dei-agiria

eta ez dala agertu adieraziz agiria eta orrelan igeslaria dala agertu, eta beste espetze baten agertu ba'da, jakin-erazo dagiala.

XV LEGEA: IGESLARIEN AURKAKO LEKUKOAK

Baita: Salatariak lekukoak bir-ekarri eta epaikariari egiztabidea emon ezker, epaikariak oizko zigorra ezarri dagiala eta azken-epaia emon eta iragarri.

XVI-XVII LEGEA: IGESLARIARI EGINDAKO EPAIA ZELAN BERARI ADIERAZO

Baita: Epaia emon eta iragarrita gero, errudunari adierazo bear jako etaezin ba'da, bera geienetan bizi dan emazte edo seme-alabai emon eta seniderik ez ba'dago, parroko eleizan iragarri.

XVIII LEGEA: ONDASUNEN ZIGORRA ZELAN BERE ERAGIN

Baiata: Salatariak auzi-eralketan neurtzeko eskatu dagiala, ondasunak saldu daitezela, eleizan iru domeketan iragarrita eta geien emoten dauanari saltzen jakola eta salatariari zor jakona ordaindu.

XIX LEGEA: ONDASUNAK KENDUTA GERO ERRUDUNA AGERTZEN DANEAN ZER EGIN

Baita: Zigorra ondasunai edo maraii buruzkoa izan danean, ordaindu bear dauana ordaintzen dauanean, beste ondasunak biurtu.

XXI LEGEA: BARONI BURUZ

Baita: Eralpenak kitatu eta gero, ondasunak biurtu dakiozala, baiña gorrotorik sortu barik. Epaia emon eta urtebete eta egun bat geroago, erruduna espetxera etorriko ba'litz, diru-arloan ez dakiola berari entzun, danak aske dirala erabagi arte.

XXII LEGEA: BERONI BURUZ

Esandako zigorrak baiño gitxiago ba'dagokioz, eta bere errubakotasuna agertu nai ba'dau, ontzat artuko da.

XXIII LEGEA: SALATARIA ATZERATUTEN BA'DA, AUZIAK EZ DAGIALA AURRERA EGIN

Baita esan eben: Illak izaten diran lege-austeetan illaren etxeokak eriotza salatu egiten dabela baiña gorrotoak alboratzeko parkatu egiten dabela.

XXV LEGEA: ZE ONDASUN EZIN KENDU

Baita esan eben: Bizkai'ko eskumendean edo aundi-kienean dagoan lurrik ezin daikela kendu sortetxeatakoak diralako.

XXVI LEGEA: IÑOR EZ ESPETXERA EROAN, EPAIKARIAK AGINDU BARIK

Baita esan eben: Iñor ez daitela atxillotu eskubidedun epaikariak agindu barik, obenaldi bero-beroan arrapatzen danean edo olakoetan izan ezik, eta epaikariak aske izten dauanean, al bait lasterren askatu daitela ogeita lau marai ordaindu ezker eta jan edo eralgi dauanagaitik ez dakio-la aske izatea galazo.

LEGE ZARRA (12): IRAUN-LEGEAK DIRALA-TA**I LEGEA: IRAUN-LEGEZ (PRESCRIPCION) ESKUBIDEA ZELAN LORTU**

Baita esan eben: Amar urteren barruan lortzen dala iraun-legea eta zorrak amabost urbe be bear izan leikez.

II LEGEA: EUKITEAREN IRAUN-LEGEA ZELAN LORTU

Baita esan eben: Bizkaitarrak lur-ondasunak edo mogikorak edo abare-ondasunak urtebete ta egun batez uste onez euki ezker, iraun-legez eukiteko eskubidea lortzen dauala.

III LEGEA: ZELAN LORTU IRAUN-LEGEA, KAN-POKOEN ETA ETXEKOEN ARTEAN

Baita esan eben: Kanpokoan ondasunai buruz amar urteko epeagaz eta etxeokoen artean be amabost urteko epeagaz.

IV LEGEA: NESKEA GALDU IZANA ETA EZKON-SARIA

Baita esan eben: Ez emakumeak eta ez aren aita eta ama ez aren izenean bestek ezin daikela salatu neska-gal-zea, galdua izan eta urte bi igaro ba'dira eta epaikariak ez dagiola entzun zigor-legez, eta erri-legez ezkon-saria bost urteren buruan eskatu daitekela eta adifnekoak diranean, urteok igaro ezker, epailleak ez dagiola entzun; adinba-koak izan ezker, legearen arabera on egiñez biur dakiola. (oarra: uletxortadun neskak dira galduak izan).

LEGE ZARRA (13): ZIN EGITEAK**I LEGEA: ERABAGITEKO ZIÑA ZELAN EGIN**

Baita esan eben: Egilleak ezarten dauan edozein auzi-tan, ziña eta zin-eleizan egiña eskatzen ba'dau, onartua izan daitela eskaria bosteun marai'tik beerakoa izan ezik: Epai-kariaren aurrean ete gurutzeraren gaiñean egingo da zin ori eta eleizan egitea eskatzen ba'da, an be eskribauaren aurrean egin bear da, ebanjelioaren eta kurutzaren gaiñean.

II LEGEA: OIÑORDEKOEN AURKA ZIÑA ZELAN EGIN

Baita esan eben: Bizkaitar bat il eta gero, auzokide batzuk ildakoaren dirutzarren bat artzeko daukela esaten ba'datoz, ondorengoai zin egiteko ekatzen jakela eta sarritan ondorengoak ukatu egiten dabe zorrik ba'zan be ez ekiela esanez. Olakoan adingabekoa naiz adinduna izan, idazkirik izan naiz ez izan, egilleak zin egiteko eska-tzen ba'dau, ez ekiala aurretikoak zor ori eukanik, zin egin bear dau.

LEGE ZARRA (14): EPAIAK**I LEGEA: EPAIKARIAK EPAIA EMOTEKO EPEA**

Baita esan eben: Epaikariari auzibidea emon eta bost egun barruan au epaia emotera beartuta dagoala. Eta azken-epaia izan ezker amabost eguneko epe-barruan. Eta ori beteten ez ba'dau, eun marai emon dagizala, eta

azken epaia izan ezker berreun marai, leku aretako gaiso-etxerako.

II LEGEA: AOLKUAREN SARIRIK EZ EMON

Baita esan eben: Epaikariak jaun aundiagandik bere saria daukan lez, ez dagiala aolko-saririk artu eta artzen ba'dau zigor lez eskuratu dauanaren alako lau biurtu dagiala, laurena alderdiarentzat eta geratzen diran iru laurenatetik bat salatariarentzat, beste bete-eragillearentzat eta irugarrena bideak konpontzeko.

III LEGEA: EPAIKARIAK ETA ESKRIBATUAK LAN-SARIEN ARAUDIA BETE DAGIELA

Baita esan eben: Epaikariak eta eskribauak auzi eta auzi-gaietan Erreiñuko lan-sarien araudia bete dagiela eta beteten ez ba'dabe lau alakoa ordaindu dagiela eta esan dan lez banatu.

LEGE ZARRA (15): AUZITAN EZ-NAIA EGITEA

I LEGEA: AUZIA AMAITUTA, EPAKARIARI EZ ERANTZUN EZ-NAIAGAZ

Baita esan eben: Azken-epairako auzia amaituta gero, korrexidoreari edo foru-alkateari edo aldunari edo letrau aolku-emoiolleari ez-naia agertzea utsa izan daitela, zin eginda esaten ez ba'dau arrazoi barriak daukazala.

Olazar'tar Martin

Artoa Euskalerrian

Guztiok dakigu artoak zelako garrantzia euki dauan gure artean: taloa janari ona zan gure ume-denporan, gure abereak janaritzeko onena arto-urune zan, labea euki gendun artoa igartuteko, arto igartua errotara eroaten gendun eta andik urun biurtuta ekarri. Uruna urte guztirako zain-tzen zan kaxa aundian...

Baiña artoa ez da jatorriz emengoa, kanpotik ekarria da eta gizaldi baten ekarria. Aztertu daiguzan labor artoaren gorabeera guztiak.

NONDIK EKARRIA DAN

1532n. urtean Bock izeneko alemaniar batek esan eban artoa Arabia'tik ekarri ebela Alemania'ra, Fuchs'ek, ostera Turkia'tik ekarria dala esan eban eta orregaitik daukola izena "Frumentum turcicum asiaticum" Asia'tik etorria dan gari turkiarra; Reymier'ek, ostera gauza ziur lez dakar Ameriketatik ekarria dala baiña beste batzuk ziur dagoz emen, mundu zarrean artoa ezagutzen zala Amerikak aurkitu baiño lenago. Ba-badago 1204n. urteko eskutitz bat Molinari'k latinez idatzia artoa Asia'ko Anatolia'tik ekarri ebela kuruztedun guda-riak diñoana.

Dana dala, gauza ziurra da Europatarrak Santo Domingo'ra lenengoz urreratu ziaranean, an artoa eskiñi eutsela eta Mexiko'n eta Peru'n be aurkitu ebela. Gaiñe-ra lurralde areitan janaririk beiñena zan.

Inkak eurak be baratzak apaintzeko erabilten eben artoa, landara ederra dalako.

ATATXIKIA (MIJO) TA ARTOA

Euskalerria'ri begira argi dago emen ez zala ezagutzen artoa Ameriketatik ekarri arte, baiña artoaren aurretik artatxikia edo "mijo" deritxona erabilten zan asko. Eta artoa etorri eta gero be artatxikiak jarraitu eban aundak urteetan. Euskalerrri osoan XVI gizaldian Escaligero'k diñosku Limusin'en gaztaña-ogia jaten zala, Bordele'n gari-ogia

eta Bearn-inguruan ogia beti da artatxikiagaz egiña.

ARTOA JATEKO OITUREA

Janariak aldatzen diranean, oitura barria artzea gaitxa izaten da. Esaterako 200 urte geroago lur-sagarra edo patatea jaten asteko, urteak bear izan ziran aundikiak eta zeiak ori jaten ikasteko.

Antzera jazoko zan artoagaz be, baiña lengo "mijo"aren izena be ezarri eutsoen naizta beste izen batzuk be aurrean ibilli: Naparroa'ko erri batzutan maiza esaten dautsoe Arturo Kanpion'en elabri baten agertzen dan lez. Donostia'n maizalastoa entzuten da. Baiña oitura ori sartu eta asko zabaldu zan, euskaldunen janaria izan da artoa gizaldietan.

NORK EKARRI EBAN

Aita Larramendi'k bere Koreografia liburuan Ernani'ko semea zan Perkaiztegi'tar Gonzalo'k ekarri ebala diño. Lenengo Gipuzkoa'ra eta gero andik beste lurralde-tara. Eta indietatik edo Ameriketatik ekarri eban.

GARRANTZIA

Euskalerrriarentzat garrantzi aundikoa izan zan ekarri-barri zan artoa, emen aldi aretan garau-gauzak oso urri egozalako.

Ara zer diñon euskalduna zan Fernan Gonzalez'ek bere olerki ospetsuan 1250n. urte inguruan: Azinas'eko gudaldian izandako euskaldunak goratzen dauzanean: "Lope izan eben buruzagi, sagarrak ugari izan arren ogia eta ardaa urri dauzan Bizkai'koa.

Lareun urte beranduago Tirso de Molina'k antzerki baten beste au diñotso emakume batek bidez Diego Lopez de Aro'ri: "Zaldun txiroa zara, zure erria lau oian dira, latzak eta malkarrak, urrezko mendiak areak egiteko burdiña daukenak, erriarrak leiñargiak. Adan leiñargia zan lez, baiña billuzik Adan lez, an ez dako bako eldurik

bai sagar landarak sagar garratzez beterik eta ugari sagarrretatik datorren zuku gasea”.

IKUSPEGIA ALDATUTA

Artoa etorri zanean, lurbarriak egin ziran edonon, eta len latz egozan lurak emonkor biurtu ziran, basoak izandako lekuetan arto-soloak agertu ziran eta erreka-ondoe-tako lur ezoak, orlegiz jantzi, euskaldunen begiak alaitzeko eta euren irudimena poztuteko.

Ikuspegia, lengo gogortasuna galdu eta ameskor biur-tu zan. Artoak apurka-apurka alboratu ebazan artatxiki solo txiroak eta garagar eta olo-soloak eta garragarriela esaten jakon illeak bere izena galdu eban.

GARIA BAIÑO GURAGO

Artoa lortzeko gurari bizi-bizia sortu zan euskaldu-nengan eta gari-ogia itzi eta taloa jaten ikasi eben, batzutan lodiagoa, labakoa, beste batzutan meeagoa, talaburdi-ñean erre.

Larramendi´k diñosku “mendi-gizonak, esaterako ikaz-giñak eta zur-langilleak, ez dabe nai garizko ogirik artoz-koa baiño, janari au gozoagoa ta sendoagoa dalako eta lanerako indar geiago emoten daualako. Orregaitik uruna eroaten dabe mendietara eta txaboletan oreka egin eta arto-opillak egiten dabez eta auts-azpian edo parriletan erre. Orregaz eta indabakaz, au be janari sendoa, sendo aurki-tzen dira ekaitzi naiz leiai naiz aixeteai aurpegia emoteko. Gaiñera artoa izaten da txiro eta lur-langilleen ogia”.

ARTOAGAZ BATERA INDABEA

Artoak gaiñera indabeari eutsi egiten dautso eta inda-beak artoari lagundu, frutua ugariago emon dagian.

Artotza ederrak aizeak batera eta bestera darabiltza-nean, azpian dago indaba apala eta artoagandik artzen dau iñutz ozkirriaren biguntasuna.

(Oarra: idaz-lan onetako burutasun asko Karmelo Etxegarai´k 1906n. urtean Donosti´ko Euskal-Jaian egin-dako itzalditik artuta dagoz).

Olazar´tar Martin´ek

GURE IDAZKIRIK ZARRENAK

Euskerazko esaldirik zarrenak Donemiliane´ko biak dira: “Izioki dugu” onek “berotasunez” esan gura dau, eta “guk ajutu ez dogu”. oneri latinez “ne precipitemur” badagokio, baiña ez dauko orren antzik. Esan lei “ez dogu lagundu” esan nai dauala. Euskerea Naparroa´koa edo baskoiena da, azkeneko “-ki” orrek eta “dugu” lagun-tzaileak adierazten daben lez. X gizaldikoak dira.

Baiña milla urte lenago idatziak dira eta latinez dago-zan Akitania´ko idazkietan asita ba-daukaguz euskerazko itzak. Goazen ba urregorik urregora.

Akitania´ko idazkietan jainkoen eta notiñen izenak agertzen dira: andere, neskato, cison, senbe, belasko

belaskonis filius, eneko enekonis filius, aherbelste.

Erdi-aroen kroniketan notiñen izen asko agertu dira eta idazki-pillo aundiak dagoz aztertu bagerik: Belatza (963), aita (980), izurra (980), ozzua (otsoa) (981), ataburu (1007), ezkerra (1024) moza edo moztua (1026) seitegi (1030) Eneko beltza ta laburra (1072) Santxo begiede-rra (1080) zarra, zuria, menditxo (1085).

Berzeo´k be ba-dakaz itz batzuk: bildur.

XI mendean: Izpea, aker zaltua (1074). Iruña´ko gotzain-eleizan liburu baten, zaldu-burua, uztai-zuar-be, zullitia, arbea, erretezubi, buruzagi, azeari...

XII mendean: Aimeric Pikaud´en agiri ezaguna daukagu eta Santiago´ra doan erromes onek, euskaldunak lotsagarri itzi-ondoren (bear ba´da zergea kentzen eutse-lako) erromeslarientzat iztegi bat dakar. Ona emen itz batzuk: urzia, andrea, Maria, ogui, ardu, aragui, sagar, sagardo, araign, echea, iaona, andrea, elicera, belaterra (abadea), gari, uric, ereguia, iaona, domne, Iacue...

Abadiño´ko arri baten, XI mendekoa izan leiteke, “Iauninco/ne ego iei no”.

Naparroa´ko Foru-Liburuan oneik aurkitzen doguz: opil arinzada, on bazendu avaria (afaria), açagueriko, ozterate, erret bide, guirissellu corr, babaçorra...

Iruña´ko gotzain-etxean, 1318-1355 urteetan gotzai-ñaren lan bat dago eta azkenerantza orrialde oso bat dago latinez erromantzez eta euskeraz, baiña dagoan lez dagoalako ez da irakurten errez. Aztikerizko otoitz bat da: “Pater noster txiki, Jesus penitentzii, lurak daka ogi, txotxak arduan gorri”.

Lopez Garcia Salazar´ena dan Bienandanzas e fortunas liburuan be (1471), ogeigarren liburuan, esaldi au dakar: Ceruarri (zer barri)? -Ba barria, galdotxa çoçaldia valmaseda conestarra (ba-da barria, Galdotxako zaldiak il dabela Balmaseda´ko oineztarra).

Ba daukaz beste esaldi batzuk be liburuaren barruan.

1496n. urte inguruan igaro zan euskalerritik Arnold von Harff eromeslari Koloniarra, Emerik Paikaud´en antzera, eta ibillaldi orrei buruz liburu bat idatzi eban eta Naparroa´n artutako itz batzuk dakaz: ogea, ardawa, oyra (ura), aragi, gasta, oluwa (oloa), huetza (laztoa), norda, schanbat (zenbat), hytzokosanna (etxeko jauna), gangon dissila (gau on dizula).

Eskutitzak erderaz egin arren, gaur lez antxiña be, euskerazko berbak be sartzen doguz “eta Jaincoac parca-derozola Migueli, cerren ni emen nayzala eçuen scribatu bear berçeri” (1549-1-8). Araoz aitak Loiola´ko Inazio´ri: “Aunque las cosas principales eztitut scribicen” (1545) eta urte beratan: “Paresçe muy conueninte mirar sobre resçiur gente verriak”.

Fr. Rabelais´ek be (1550) esaldi bat ipiñi eban euskeraz Pantagruel eta Gargantua bere liburuan.

Naparroa´n, batez be, Iruña´ko artxibuetan, Leire´n, Iratxe´n, Irantzun´en eta Errioxa´ko Kalagurri´ko gotzain-eleizan, Balpuesta´n eta Donemiliane´n olako asko dagoz, batez be, erri eta giza-izenak.

Eta emen amaitzen dogu zerrenda au, aurrerantzean

Prestakuntza programak

Alkarbide

Euskara teknologia berrietan

Euskararen sustapena enpresan

Sentsibilizazio kanpainak

Euskararen sustapena udaletan

Hizkuntz normalizazioa

Elkartentzako laguntza

Euskara da gure konpromisoa. Hori dela eta, legegintzaldiaren hasieran, Euskara Sustatzeko Zuzendaritza sortu zen, euskararen erabilera sustatzeko eta bizkaitarrei euskaraz bizitzeko aukera bermatzeko:

Euskara sustatuz udaletan. Hamaikatxo diru-laguntza bideratu ditugu udaletara, euskararen aldeko jarduerak bultzatzeko. Guztira 472 proiektu gauzatu dira Bizkaiko 100 udaletan.

Euskararen erabilera sustatuz enpresan. 25etik gora proiektu gauzatu ditugu, euskara gizartearen eremu guztietara hedatzeko, bai eta lan mundura ere.

Elkarteei lagunduz. Euskararen alde ari diren elkarten hainbat proiektu bultzatu ditugu, 250etik gora; eta euskarazko aldizkarietara ere laguntza eman diegu.

Sentsibilizazio kanpainen bidez. Lau kanpaina egin dira telebistan, prentsan eta irratian, jendea euskararen

arazo espezifikoetara sentsibilizatzeko eta euskararen prestigio soziala handitzeko.

Prestakuntzarako laguntzak emanez. 200 beka eta laguntza eman dira, unibertsitate mailako euskarazko ikastaroak egiteko.

Euskara teknologia berrietan sartuz. Etorkizunari begira, ezinbestekoa delako euskara eta teknologia berriak uztartzea.

Euskararen normalizazioan aurrera eginez. Herritarren eta administrazio publikoen arteko harremanetan euskaraz egiteko aukera bermatzeko.

Alkarbide sortuz. Bizkaiko udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuen bilgunea, ahaleginak koordinatu eta baterako ekintzak sustatzeko

...Eta beste jarduera asko martxan jarritz... Izan ere, legegaldi honetan 25 milioi euro baino gehiago erabili dira euskalgintzan, 500.000 bizkaitarren mesederako.

Euskararen alde eguneroko aritzea: horixe dugu bidea.

1999-2003

Lau urte euskalgintzan

BBK

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²